



JULIO LE PARC

BERINAK **SEN PERE**
ST PÉE SUR NIVELLE
30.5 > 14.6

Les Vitrines III 2015

ARTE GARAIKIDE IBILBIDEA

PARCOURS D'ART CONTEMPORAIN

BERINAK
LES VITRINES

IBILBIDE BAT **GOGOETA BAT** **ELKAR BATZEA**

BERINAK/Les Vitrones arte garaikide ibilbideak gaurko sorkuntza galdezkatzen du, trukaketen emaitzen, elkar ezagutzeen, baita harreman sortzaileen sustatzeko dituen gaitasunari buruz. Sorkuntzaren ekoizpena bera edo aurkezteko prozesuak barneratzen ahal dituen gogoeta/ibilbidea da. Jositako lokarri bat, seinale dena publiko ta gomit, sortzaile ta antolatzaile, partaide, entpresa, ikastetxeen...artean sortutako harremanan. Denak momentu beraren partaide SENPEREN. Lapurtar herri baten plazan, ipar ta hego Pirineo artean, euskal ondarea begiralearen behakoari inposatzen zaio berez doanaren indarrarekin. Testuinguru hortan gomitatzen ditugu bertako ta atzerriko sortzaileak trukaketa eramatea gaurko euskal gizartearekin.

Hemen, familiarekiko lokarria. LEPARCen prismotik ikusirik. Julio, aita; Juan , semea; Eli alaba-berria, hiru harreman garaikide den sorkuntzarekiko. Bizi amankomun bat ta ibilbide artistiko bereziak, partekaturik, erakusketa denboran, euskal gizarteari ikustaldi gisa.

Ta hor, hiru sortzailearen bideak, hemen oinarritzen zaizkienak, Euskal Herrian, ta segitzen dutena han. Hiru ibilbide emankor gurutzatzen ta afitxatzen direnak SENPEREN, herriko plazan: Gonzalo ETCHEBARRIA, BIZKAITIK, XIBERURA; Bertrand DEZOTEUX, BAIONATIK, PARISERA ta IBARRAK, Maia ta Baptiste, NEW YORK ta MIARRITZEREN artean, parekatze horren parte izanen dira.

Elkar batzea beraz, BERINAK-en muina, nun sortzaileak, obrak ta begiraleak elkartzen giren. Lurralde baten baitan, mugazgainekoa, bertako ta ondoko eskualdunen etengabeko trukaketaren emaitz. Lotura kultural azkar bera. Batzen dituen, famili berdinean bereganatuz, haren kideen ainiztasuna.

Akitaniako FRACaren bideo obrak etorriko dira osatzera aipatutako sorkuntzak ta aurkeztuko dizkizuegu ibilbidearen bi asteen denboran.

BERINAK arte garaikide ibilbideak elkarbatzeen sortzea artearen eremuan uztartzen du ta kokatzen du gaurko sorkuntza, garapen baten bitarteko ta motore bezala, lurralde aberats ta berezi baten baitan, Euskal Herriko herri batena.

BERINAK III

PROGRAMAZIOA

AINTZIN ESTREINALDIA // 2015KO MAIATZAREN 22AN OSTIRALA

REFLEX ESPAZIOAN, DONOSTIN 18h00 etatik goiti

Sortzaileen aurkezpena beren parte hartzearekin

Performantzia eta kontzertuak, hiruki holografikoa

ARTE GARAIKIDE IBILBIDEA,

SENPERE // MAIATZAREN 30ETIK EKAINAREN 15RA

Julio LE PARC > Elizan

Eli JIMENEZ LE PARC > Plazan

Gonzalo ETXEBARRIA > Ur Ertsi Bazterreko parkean

Maia eta Baptiste IBAR > San Josep Eskolan

Bertrand DEZOTEUX > Frontoian


Anouck DURAND GASSELIN eta Laurent REDOULES > Frontoian



BERINAK // Les Vitrines-en partaideak

Espacio REFLEX> bolumena, Mugazgaineko Mediateka

AkitaniakoE Frac> Marcos Avila Forero-ren baita Ferhat Ozgur-en bideoak



ESTREINALDIA // 2015-KO MAIATZAREN 30-A LARUNBATA

EGINTZAK > 16etatik goiti, elizan, karrika nagusian ta frontoian

- Bertsulariak > Maialen Lujanbio /Jon Maia / Xumai Murua

Eneritz Zabaleta

- Ttotelka > Mintxo Garcia / Pablo Zarategi

Txalaparta elektroniko ta ibiltaria

- Zoa Xeper > bartzelonako dantza konpania

Joana Olasagasti bat batezko dantza

- Pascale Ferrari > leku Kulinarra

KONTZERTU TA EGINTZAK > 21h etatik goiti LARREKO gelan

- Juan LE PARC > « Shadow Light » argi egintza

- Dual Split > kontzertua

- ZIIIG > soinu bideo nahasketa,



ELKARTZEA// 2015-KO MAIATZAREN 7-A LARUNBATA

EZTABAIDA > Errotan, 18hoo-tatik goiti

“Sorkuntza garaikidea Euskal Herrian”

B.Dezoteux, M. ta B. Ibar ta Gonzalo Etchebarria

Bertsolarien bat batezkoa



LAN TALIERRAK MAIATZAREN 25-TIK, 29-RA

Juan Leparc, helduak, pratika plastikoak ta egintzaren prestaketa


Pascale Ferrari, helduak, haurrak, ibilbide kulinarra

TALIER ELEBIDUNAK, EKAINAREN 3-TIK 10-RA ASTEAZKENA

A-M. Jeannou ta I. Viquendi, Gonzalo Etchebarriaren ekoizpenean oinarrituz.

ELEBIDUN MEDIAZIOA

Edonorekin, hitzorduak antola daitezke erakusketaren bi asteen denboran



BERINAK III

INSTALAZIOA

JULIO LE PARC


Cachan-en (Frantzia) bizi eta lan egiten du
<http://www.julioleparc.org/>

60 garren hamarkadan, Julio LEPARC-ek estetika garaikide ibilbide berri asko bultzatu zituen, GRAV elkartearen baitan bereziki : desmaterializazioari buruzko ikerketak eramanez, optika hautemanaren nahasketa aztertuz, formen sinplifikazioa landuz, argi artifizialak baliatuz, erakusketa ingurumenak kontutan hartuz, begiralearen parte-hartzea barneratuz baita ikustearen mugak esperimentatuz.

Beste LEPARC-en ohizko ikerketak aurkeztuak izan ziren duela guti Los Angeles-eko MOCAn, edo Pariseko « Palais de Tokyo »-n. Erakusketa horien bitartez, haren adierazapenaren ezaugarri minimalista eta aldi berean labirintikoa agertu zen, komposizio klasikoaren alderantzizko jarrera hartuz.

LEPARC-en obrak aldizka agertzen zaizkigu, berriz ez finkatzeko berantago, begiradari eskapo egiten dute.

Senpereko eliza LEPARC-en argi desbiderazioen leku irudikapen bilakatuko da BERINAK denboran.



BERINAK III

INSTALAZIOA

GONZALO ETXEBARRIA

Barkosen (Xiberua) bizi eta lan egiten du
gonzaloetxebarria.blogspot.com/

Bilbon sortua 1954an, Gonzalo Etxebarriaren ibilbidea Deban hasten da Jorge Oteizaren eraginpean, berantago garatzeko Uztaro elkarte artistikoaren sortzearekin Mendikotan. Aske bere sortzaile egintzan, bere indarra, duen independentzi ta irudimenetik ateratzen du, Gonzalo-k bere gogoeta plastikoak irudien ugaritasunean ta “razionala” ta irudimenaren arteko dialektikan oinarritzen du.

Senpereko parke batek ETXEBARRIAREN pintura aterbetuko du eraikiaraziko dugun iragarki afitxa erraldoi baten bitartez.




PERFORMANTZIA

JUAN LE PARC

Cachan-en (Frantzia) eta Bali (Indonesia) artean bizi eta lan egiten du. <http://www.juanleparc.com>

Paris-en sortua 1960-an, duela zonbeit urte gorpuntzen hibridazio eta arra-moldaketak esperimentatzen dituela, jantzi eta argien jokoak baliatuz. Aldaketa bitxi horien aintzinean irudimenak pertsonai mitiko edo izugarrien presentziaren sortzea ikus dezake. Joko erotiko eta gorputzen poetizazio bat seinale da bere performantzian.



LEPARC-ek « Shadow Light » aurkeztuko digu Larreko gelan eta eramanean duen lana herritarren parte hartzeekin egiten da.

BERINAK III

LEKU IRUDIKAPENA

BERTRAND DEZOTEUX

Baiona eta Parise artean bizi eta lan egiten du
<http://bdezoteux.bab-art.fr/roubaix3000/>

Bertrand Dezoteux sortu da Baionan 1982an.2008an « Le Corso » saria irabazten du bere bideo laneri esker. « Zaldiaren orena » 3d-zko dokumental bat erakusten du Pariseko « Palais de Tokyo » erakustokian.

Berinak denboran Bertrand DEZOTEUX-k herritarrekin bideratzen dituen harremanak aurkeztuko ditu erakusketa denboran eraikiko diren obra edo trukatzekak erakutsiz publikoari beren eguneroko garapenean.

INSTALLATION

ELI JIMENEZ LE PARC

Bizi eta lan egiten du Cachan-en (Frantzia)

Elizabeth JIMENEZ LE PARC bere ibilbidean izan dituen formakuntza ezberdinetaz baliatzen da gogoeta pertsonal baten eramateko : diseinua, serigrafia, moda diseinua, soinuaren yoga eta horrekin bere estetika kokatzen du meditaziora gomitatzen duen arte baten zabaltzeko.

Indianoen eta amerindianoen marrazki geometrikoetatik inspiratzen da bere mundu formalaren eraikitzeko.

Senpereko plaza gauaz argituko dute JIMENEZLEPARC-enamets-harrapatzaileek, giro berri eta berezi bat hedatuz soinu onden gisara.



BERINAK III

WALL PAINTING

MAIA / BAPTISTE IBAR

Miarritze eta New York artean bizi eta lan egiten dute.

<http://maiaibar.com/>

<http://www.baptisteibar.com/>

Ibar anai arrebeak sortzaileak dira musikaren arloan baita marrazkilari ta tintalari gisa. Maiak bere irudimena eta gogoetak luzatzen ditu piktural adierazpenaren bitartez. Baptiste, Rhode Island-ko pintura diseinu eskolatik pasa zen ta anartean Michel Gondry-rentzat marraztua du filma baten sorkuntzarentzat.




Senpereko San Josep eskolaren pareta berriz moldatuko dute pintura haundi baten bidez. Festibalaren lehen egunean kontzertu elektroniko bat eskainiko dute larreko gelan DUAL SPLIT talde izenarekin.

INFO. GUNEA

EL ZENTRO

ANOUCK DURAND GASSELIN

LAURENT REDOULES



Bizitzen eta lan egiten dute Parise eta Tolosa (Frantzia) artean.
<http://anouck-durand-gasselin.fr/>

1975 sortua A. DURAND-GASSELIN argazkilaria izan da 2007 arte. Argazkiaren lana segitzen du gogoetatzen onddoekin esperimentazio grafikoak eramanez bere irudietan. Naturaren ikerketan oinarritzen da haren lan ardatza.

Rodez-en sortua 1962-an, Laurent REDOULES-ek « Lesalonreçoit » arte erakustoki alternatiboa kudeatzen du Tolosan. Hilabete guziz erakusketa bat aurkezten du bertan.

Pilota plazan izanen den « El Zentro » instalazioak gomitatuko ditu parte hartzen duten sortzaileak beren prestaketa lan edo gogoetak presentatzen publikoari eremu ttikiago batean. Lan baten eremateko beharrezkoa diren ikerketa lanak, gehienetan itzalean uzten direnak, partekatzen ahalko dituzte gune hortan.

ESTREINALDIA

ELIZA/FRONTOIA

MAIATZAREN 30-A LARUNBATA

BERTSULARIAK

EGINTZA SAN PEIO ELIZAN

JULIO LE PARC-EN OBRAREN LEKU IRUDIKAPENAREN ERAGINPEAN

Erakusketaren abiatzeko euskararen zizelkatzea ta Julio LEPARC-en argi instalazioaren mugimendu etengabeak elkar parekatuko dira arraberritzen den erritmo aldakor batean. Maialen LUJANBIO, Jon MAIA, Xumai MURUA eta Eneritz ZABALETA bertsolariak gomitatu ditugu Senpereko elizan momentu berezi horren asmatzeko.

TTOTELKA MINTXO GARCIA / PABLO ZARATIEGUI TXALAPARTA ELEKTRONIKO IBILTARI EGINTZA

Txalaparta elektronikoa edo egurrezkoa, alboka eta txistua baliatzen dituen musikaria da Mintxo GARCIA. Haren parte hartzea egingen da ikusleen mugimenduen eta erakusketa lekuen arabera.



ZOA XEPER DANTZA KOMPANIA / JOANA OLASAGASTI

Euskal dantzari gaztea, Bartzelonako dantza konpaniaren kide, bat batean aurkeztuko ditu bere kideekin batera, dantza puntuazio batzu ibilbidearen estreinaldiaren arratsalde denboran.

PASCALE FERRARI

SUKALDARITZA EGINTZA TA TALIERRA.

Pascal FERRARI-k talde bat eramanen du oihane eta mendiko bideetan ezezagun zaizkigun landare eta belarren biltzeko.

Erakatsiko digu ondoren nola lantzen diren. Instalazio bat prestatuko du estreinaldi egunean begiraleek jasta dezaten Senpereko naturak dituen altxor xume horiek.



ESTREINALDIA

SALLE LARREKO

SAMEDI 30 MAI 2015

JUAN LE PARC

« SHADOW LIGHT » PERFORMANTZIA
SOPRANO LAURA BUENROSTRO

Argi jokoek pertsonai bitxi batzuen agertzea ahalbidetzen dute.

Itzal eta argi jokoek taula baten maneran gorputzen aldaketak erritmatuko dituzte performantzia hortan.



DUAL SPLIT

ELECTRO KONTZERTUA

Dual Split eusko-estatu-batuar bikote musikala da 2010-ean sortua Brooklyn-en.

Maia Ibarrek kantatzen du eta perkusioak segurtatzen, bere anaiak osatzen du bikotea, Baptiste Ibarrekin (Bizi gara).



ZIIIG

DJ / VJ,

Publikoak mugikorrarekin igortzen ahalko ditu bere kantu proposamenak eta Dj Ziiig-ek integratuko ditu aintzinetik prestatua dituen erritmo eta soinuekin.

Aldi berean VJ AnmA-k bertan hartutako irudiak mugikorren bidez nahasiko ditu zuzenean.



BERINAK III

BIDEOAK

AKITANIAKO FRAK

Marcos Avila Forero

« Cayuco, ibilbide aztarna Oudja /
Melilla barku bat desagertzen da karta bat marraztuz »
2012

bideoproiektzioa HD, soinu, 55' 1/5 Edizioa



Marokon existitzen da bide bat, European instalatu nahi duten migrante klandestinoen azken etapa errepresentatzen duena. Oudja hiri ondoan, (etxita dagoen) Algeriako mugatik badoa, Melilla-ko xoko espagnolera arte.

«Cayuco», maiz klandestinoen trabeskarazteko erabiltzen diren arrantzarako barkuen igeltsuzko arra-ekoizpen bat, mugitua izan da, muga batetik bestera, bide berdina berriz hartuz.

Uztartua eta tiratua lurrean zonbeit egunez, eskultura igatu da pixkanaka bere mugimenduaren ondorioaren aztarna marraztuz, Melillatik hurbil den, Gourougrou mendiraino egindako bidaiaren orroitzapenaren ber-agertze baten gisa. Bideo horrek, egindako ibilbidearen esperientzia berriz kontatzen du, gurutzatutako paisaiak, igeltsuzko ontziaren ondarrak. Barku suntsitu horrek, hala, bere ur-peratzea aipatzen digu.

Ferhat Özgür

Métamorphosis

2009

bideo koloreztatua, soinu 9'25 5/5 Edizioa



Ferhat Özgür-en bideoak, ikusgarritzat ematen ditu, dute baten inguruan, solasean hari diren sortzailearen ama, erakasle den haren auzo batekin. Bere lagunaz desberdinduz, sortzailearen amak buruko oihal bat jantzia du. Haien elkarrizketa garatzen da gai horren inguruan. Bi emazteek erabakitzen dute orduan beren erroak aldatzera ta hasten dira beren jantzien trukatzan.

Sortzailearen eragina kamararen bestaldean pixkanaka desagertzen da, emazteak beren pozan nagusitzen diren aldiak, beren jarreraren sortzaile bilakatuz. Beren kidetasun ta eskuzabal jarrerak, beren izpiritu idekidura ahalgegarria kontsideratzen ahal daiteken egoera baten parean, irri-farreek...Eszenak, bere osotasunean, erlisiozko simboloen erabilerarekiko eztabaidetan agertzen diren beldurra ta morala bortizetaz trufatzen da.

BERINAK III

EZTABAIDA

ESPACIO REFLEX

Proiektuen espazioa

Reflex Espazioa Donostian kokatutako "Project Room" bat da. Esperimentatzeko lanabesa da, eta bertako zein Europako kultur eragileen sareak aktibatzean datza bere zeregina. Topagune ez ezik, katalizatzaile soziala ere bada, eta ekitaldi artistiko independenteak sortzen ditu Euskal Herrian..

www.espacioreflex.org

Espacio Reflexek 2014an garatu duen "Ikusezinaren Behatokia" proiektuaren barruan, Mediateka bat aurkeztu dugu, mugaz bestaldekoa, mugikorra, edonork kontsultatzeko modukoa.

Helburua da, Iparraldean eta Hegoaldean kultur programak garatzen dituzten egituren barruan loturak sortzea, topaketak antolatzea eta ikuspegi-trukeak eragitea.

Mediateka hau berezia da, leku diferentetara mugitzeko aukera duelako; izan ere, gurpilak, aulkiak eta argia dituen liburutegi bat da.

Mugaren kontzeptuaren gaia bakarrik jorratzen duten 100 titulu eta 20 film inguru biltzen dira; bertan, besteak beste, nortasunaren, lurraldearen, politikaren eta generoaren inguruko eztabaidak zabaltzen dira.

Gai honen inguruan komunikaziorako eta eztabaidarako espazio bat sortzeko beharrak ikusita, Espacio Reflexek herritarrei zabalduko ezagutza-espazio hau eratu du.

Hasieran, Espacio Reflexen aurkeztuko da, Esteban Zamorak eta Luisa Etxeniketik lagunduta. Bertan, mugaren kontzeptua aztertuko da filosofiaren, antropologiaren eta literaturaren arloetatik.

Bigarren etapan, hala eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko lekuetara (erakunde ofizialak eta pribatuak) mugituko da Mediateka, adimen-mailako parte hartzeko jarduerak honen



BERINAK III

TALDEA

ERAKUSKETAREN ANTOLATZAILEAK

ANNE-MARIE JEANNOU

anma4@mac.com // 00 33 6 63 71 49 62

INAKI VIQUENDI

iviquendi@gmail.com // 00 33 6 15 51 44 05

GARAPENA / KOMUNIKAZIOA

CECILE CANO

cix.design@gmail.com // 00 33 6 88 59 62 11

HEDABIDEAK

FRANCK DOLOSOR

dolosor@hotmail.com // 00 33 6 58 39 91



MAIRIE DE
ST PEE SUR NIVELLE

